


ISEI - IVEI

**Rs1.2.1. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4.
MAILAN: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Edizioa: 2016ko abendua

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

Inmaculada Tambo

José Ramón Ugarriza

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^a Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Jose Luis Tranche

Eduardo Ubieta



Rs1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Sarrera	4
Rs1.2.1.1 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.	6
Rs1.2.1.2 taula eta grafikoa: LHko 4. mailako ikasleek <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> lortutako puntuazio zuzenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).	7
Rs1.2.1.3 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek kompetentziaren dimentsioetan (<i>Irakurmena, Entzumena, Idazmena</i>) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.	8
Rs1.2.1.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.	9
Rs1.2.1.4 grafikoa: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza. 2015. urtea.	10



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015¹.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* duten mailaren inguruko informazioa ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015 urteetako Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak dira. Ebaluazio horietan 250 puntuko batez bestekoa ezarri da, desbideratze tipikoko 50 puntu eta hiru errendimendu maila (hasierakoa, erdiko mailakoa eta aurreratua).

Emaitzak arlo hauekin lotuta aztertzen dira: ikasleen sexua, dimentsioak (entzumena, irakurmena eta idazmena), hizkuntza-ereduak² eta ikastetxearen titulartasuna³ (geruzak), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmalarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmala), aitaren eta amaren ikasketen maila gorena, jaiotze-lekua eta familiako hizkuntza.

2015eko ebaluazio diagnostikoan *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasleen ehunekoa, errendimendu maila altutik baxura, honakoa izan da: % 38,2koa erdiko mailan, % 36,1koa hasierako mailan eta % 25,7koa maila aurreratuan. Maila aurreratuan eta erdiko mailan, nesken ehunekoak mutilen ehunekoa gainditzen du: 6,1 eta 2,1 puntu, hurrenez hurren. Hasierako mailan, mutilen ehunekoa nesken ehunekoa baino 8,3 puntu altuagoa da. 2009 eta 2015 artean ikasleen ehunekoaren bilakaera positiboa izan da maila baxuan (3,1 puntu) eta erdiko mailan (1,6 puntu), eta negatiboa maila aurreratuan (4,8 puntu).

2015ean geruzen araberako batez besteko puntuazioak aztertzean, ikusten da puntuaziorik altuena itunpeko D ereduari (262) eta D eredu publikoari (251) dagokiela. Ezarritako batez besteko puntuazioaren azpitik, puntuazio altuenetik baxuenera, eredu hauek daude: itunpeko B eredu (238), B eredu publikoa (225), itunpeko A (216) eta A eredu publikoa (192). 2009 eta 2015 urteen artean, ikasleen batez besteko puntuazioen bilakaera positiboa izan da A eredu publikoan (30 puntu) eta itunpeko A ereduan (20 puntu), baina zazpi edo zortzi puntu negatiboa izan da gainerako geruzetan.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatutako hiru dimentsioetako bilakaeraren azterketak erakusten du 2009 eta 2015 arteko aldirian, mutilen eta nesken kasuan, ikasleen puntuazioek okerrera egin dutela *Irakurmenean* eta hobera egin dutela *Entzumenean*. 2011 eta 2015 urteen arteko datuei begiratuta, neskek eta mutilek, 2011tik 2013ra, *Irakurmenean*, 6 eta 7 puntu egin dute gora hurrenez hurren, eta 2013. urtetik 2015era 20 puntu egin dute behera biek. *Entzumenean* berriz, alderantzizkoa gertatzen da: 2013an puntuazioek behera egin dute eta 2015ean neskak 2011ko puntuaziotik puntu batera geratu dira (263) eta mutilak bi puntu gorago (256). *Idazmenari* dagokionez, sexuaren araberako aldeak handiagoak dira beste bi dimentsioetan baino (batez beste, neskek mutilek baino 14 puntu gehiago lortu dituzte 2009-2015 aldirian). Hala eta guztiz ere, 2009 eta 2015 artean, puntuazioak nahiko egonkorak dira; nesken kasuan, 3 puntuko

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEen hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

³ EAEen funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



Rs1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



gehieneko aldea, eta mutilen artean, 2 puntukoa. Neskek, 2009tik 2015era, 2 puntu egin dute behera eta mutilek 2 puntu egin dute gora. Aldi horretan, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte hiru dimentsioetan.

2015ean, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* erdiko mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen profila honako hau da: irakasmilarekiko adin-egokitasunean daudenak (% 66,5), autoktonoak (% 65,1), ISEK maila ertain-altua eta altua (% 68,8) eta familia-hizkuntza euskara dutenak (% 81,1). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila honakoa da: irakasmila errepikatu duten ikasleak (% 28,6), etorkinak (% 42,9) eta ISEK maila baxua (% 47,2) dutenak. Euskadiko ikasleen ezaugarriek ia ez dute aldaketarik jasan 2009 eta 2015 artean, gurasoen ikasketa mailari dagokionez salbu; izan ere, goi mailako ikasketak egin zituzten gurasoen ehunekoak gora egin du, eta familia-hizkuntzari dagokionez, euskara familian lehenetsitako hizkuntza gisa erabiltzen duten ikasleek gora egin dute.



Rs1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs1.2.1.1 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	32,9	29,1	36,6	36,6	36,5	36,6	30,5	34,4	26,8
2010	27,2	22,6	31,5	43,6	44,6	42,7	29,2	32,8	25,8
2011	30,0	25,5	34,2	37,3	38,7	36,0	32,7	35,8	29,8
2013	30,6	26,1	34,9	43,4	44,7	42,1	26,0	29,2	23,0
2015	36,1	32,3	39,7	38,2	40,0	36,4	25,7	27,7	23,8



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



Rs1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:

Euskara


HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs1.2.1.2 taula eta grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako puntuazio zuzenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

	2009	2010	2011	2013	2015
A Publikoa	161	173	187	185	192
B Publikoa	232	237	234	231	225
D Publikoa	259	261	260	257	251
A Itunpekoa	197	203	218	215	216
B Itunpekoa	246	250	252	244	238
D Itunpekoa	269	271	274	265	262



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



Rs1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs1.2.1.3 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleek kompetentziaren dimentsioetan (*Irakurmena, Entzumena, Idazmena*) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011	2013	2015
Guztira	Guztira	250	254	256	252	248
	Neskak	256	259	261	257	252
	Mutilak	245	249	251	247	245
<i>Irakurmena</i>	Guztira	250	258	255	246	241
	Neskak	256	264	259	265	245
	Mutilak	244	252	250	257	237
<i>Entzumena</i>	Guztira	250	247	259	261	259
	Neskak	254	251	264	251	263
	Mutilak	246	243	254	241	256
<i>Idazmena</i>	Guztira	250	250	250	250	250
	Neskak	259	257	258	256	257
	Mutilak	242	243	243	244	244



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



Rs1.2.1.4 taula:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.

	Ikasle %					Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua	
	2009	2010	2011	2013	2015				
ISEK	Maila baxua ²	14,6	15,8	14,7	16,7	15,8	52,8	33,1	14,1
	Maila ertain baxua ²	23,3	24,2	24,2	25,0	23,8	36,7	38,9	24,3
	Maila ertain altua ²	28,0	26,6	27,4	27,1	27,8	31,7	39,5	28,8
	Maila altua ²	34,0	33,3	33,7	31,2	32,6	31,2	39,0	29,7
Egokitasuna	Ikasmala egokia	93,0	92,2	92,7	93,2	93,1	33,5	39,2	27,4
	Ikasmala EZ egokia	7,0	7,8	7,3	6,8	6,9	71,4	25,1	3,5
Titulartasuna	Publikoa	50,5	49,9	50,3	50,1	50,4	36,7	37,9	25,3
	Itunpekoa	49,5	50,1	49,7	49,9	49,6	35,4	38,4	26,1
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu gabe	3,3	3,0	3,7	3,6	3,5	70,5	22,2	7,3
	Derrigorrezko ikasketak	13,0	12,6	14,4	14,1	12,6	52,8	34,6	12,6
	Batxilergoa, HZ	34,4	34,1	38,5	36,0	36,5	38,0	41,1	20,9
	Goi mailako ikasketak	41,0	41,4	43,4	46,2	47,5	26,7	38,4	35,0
Jaioterria	Autoktonoa	94,9	94,2	94,8	95,1	94,7	34,9	38,5	26,6
	Atzeritarra	5,1	5,8	5,2	4,9	5,3	57,1	32,6	10,4
Familia-hizkuntza*	Euskara	18,0	26,1	23,6	25,3	26,3	18,9	38,6	42,5
	Euskara EZ dena	81,0	69,8	76,4	74,1	73,7	42,1	38,1	19,8

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.



Rs1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:


Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs1.2.1.4 grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza. 2015. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2015.